

# 2006ko Memoria Donostia Kultura

San Telmo Museoa Museo San Telmo

Liburutegiak Bibliotecas

Kultur Elizeak Centros Culturales

Musika Música

Ilustrabroak Cursillos

Erakusketak Exposiciones

Antzerki Feria Feria de Teatro

Beldurrezko Astea Semana de Terror

Zinema Cine

Dantza Danza

Antzerkia Teatro

Literatura Literatura



Donostia Urdia  
Ayuntamiento de San Sebastián



DONOSTIA  
KULTURA



- 3 Balantze ekonomikoa eta diru-laguntzak**
- 4 Komunikazioa eta irudia**  
Tel.: 943 481152
- 5-8 Liburutegi-zerbitzua**  
**Liburutegi Nagusia**  
Alderdi Eder: Tel.: 943 481486 Faxa: 943 481490  
**Liburutegi Nagusiko Haur Saila**  
Fermin Kalbeton 25, Tel. 943 481999 Faxa: 943 481195
- 9-10 Kultur Ekintzako Zerbitzua**
- 11 Egia Kultur Etxea**  
Baztan, 21: Tel.: 943 291514 Faxa: 943 287219
- 12 Loiola Kultur Etxea**  
Aralar, 17: Tel.: 943 454605 Faxa: 943 473498
- 13 Casares-Tomasene Kultur Etxea**  
Darieta bidea, 1 (Altza): Tel.: 943 351149 Faxa: 943 354046
- 14 Altza Kultur Etxea**  
Larratxo pasealekua, 55: Tel.: 943 396494 Faxa: 943 354046
- 15 Ernest Lluch Kultur Etxea (Amara)**  
Anoeta pasealekua, 7 (Amara) Tel.: 943 481919
- 16 Okendo Kultur Etxea**  
Nafarroa Etorbidea, 7 Tel: 943 290672 Faxa: 943 290721
- 17 Lugaritz Kultur Etxea**  
Heriz, 20 (Antiguo): Tel.: 943 310780 Faxa: 943 310782
- 18 Larrotxene Kultur Etxea**  
Intxaurrondo, 57 (Intxaurrondo): Tel.: 943 291954 Faxa: 943 292746
- 19 Intxaurrondo Berri Kultur Etxea**  
Gaztela, 2: Tel.: 943 279343 Faxa: 943 275241
- 20 Arte Eszenikoak eta Musika**
- 21 Antzoki Zaharra**  
Nagusia, 3: Tel.: 943 481966 Faxa: 943 481969
- 22-23 Donostiako Antzerki Feria**  
Tel.: 943 481966 Faxa: 943 481969
- 24 Zinema eta Bideoa**  
Tel.: 943 481157
- 25 Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren XVII. Astea**  
Tel.: 943 481183
- 26 Aldi baterako erakusketak**
- 27 San Telmo Museoa**  
Zuloaga plaza Tel.: 943 481580

# Balantze Ekonomikoa



<b>SARRERAK</b>	<b>13.549.536,96 €</b>
Udalaren ekarpena	11.880.578,50 €
Foru Aldundiaren dirulaguntza	158.259,98 €
Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza	224.747,95 €
Beste hainbat dirulaguntza	132.110,72 €
Kultura Ministerioa	39.000,00 €
Babesleak	117.888,04 €
Jardueren sarrerak	445.310,67 €
Alokairuak	234.017,24 €
Argitalpenak	33.084,03 €
Beste hainbat	284.539,83 €

<b>GASTUAK</b>	<b>13.549.536,96 €</b>
Langileen gastuak	6.964.504,49 €
Konponketak eta mantentze-lanak	360.791,27 €
Bulegoko materiala	153.279,85 €
Hornikuntzak eta komunikazioak	715.554,48 €
Aseguruen primak	104.601,21 €
Zergak	37.424,64 €
Enpresa gehiagoren jarduerak eta jardunak	3.685.189,03 €
Publizitatea eta propaganda	554.646,74 €
Dirulaguntzak	193.141,25 €
Inbertsioak	780.404,00 €



# Donostia Kulturak Emandako Diru-laguntzak



**6** Diru-laguntzak hainbat elkarterekin egindako hitzarmenen bidez  
24.761,00 €

**11** Diru-laguntza zuzenak  
55.094,76 €

**60** Diru-laguntza Kultur Jardueretarako Elkarteei  
70.718,00 €

Zubietako Herri Kontseiluarekiko Hitzarmena  
3.750,00 €

Musika eta Dantza Eskolarekiko Hitzarmena  
41.475,85 €

**GUZTIRA**  
**195.799,61 €**



# Komunikazioa eta Irudia



Egunetik egunera hirian garatzen diren kultur jardueretan DONOSTIA KULTURA da nagusi, Arte Eszenikoak, Zinema, Artea, Literatura eta Musika programatzen baititu, ekipamendu desberdinen bitartez –San Telmo Museoa, Antzoki Zaharra, Kultur Etxeak eta Udal Liburutegien Sareak– eskaintzen dituen jarduera eta zerbitzuez gain. Programazio hori ezagutzera emateko, honako baliabide hauek erabili ditu:

-Prensaurrekoak	189
-Literatur aurkezpenak	245
-Programak (liburuxkak, kartelak, gonbidapenak)	250
-Prensa-oharrak	183
-Iragarkiak idatzizko prentsan	350
-Saio laburrak irratietan	85
-Telebistetan	397



Gainera, 2006an kaleratu dituen argitalpenen artean, azpimarratzekoak dira: “Paisaien fabrika” katalogoa, “JM Serten mihiseak” berrargitalpena, “La Generación de la violencia del cine Norteamericano”, “Joaquín Jordá” eta “John Huston” Nosferatuko aleak eta abar.



# Alzako Irrati Tailerra



CASARES IRRATIA 107.4 FM (24 orduko emanaldia)  
2006an 43 ikastaro eta 23 tailer eman dira.  
342 elkarrizketa egin dira.

# Donostia Kultura Txartela



41.000 pertsona dira, dagoeneko, Donostia Kulturak eskaintzen dituen zerbitzuen eta abantailen onuradun: beherapenak ikusizunetan eta ikastaroetan, maileguak liburutegietan, sarreren zozketak, hileko agendaren bidalketa eta abar. Hiriko kultura baldintza onenetan gozatzeko eskusiban eskaintzen zaizkien abantailak.

2006an, aurreko urtearen antzera, nabarmen egin du gora gure bazkideen kopuruak: 6.000 bazkide gehiago. Gainera, handitu egin da hiriko kultur erakunde nagusiekin (Zinemaldia, Jazzaldia, Musika Hamabostaldia, EHUko udako ikastaroak eta abar) ezarria dugun lankidetzeta eta ondorioz handitu egin dira gure leialtze-txartelek (Donostia Kultura eta Kutxa Donostia Kultura) eskaintzen dituzten abantailak.



# Liburutegi Zerbitzua

(Udal Liburutegi Publikoen Sarea)



<b>Liburutegi-kopurua:</b>	15
Bilduma modernoko <b>fondoak</b>	259.196
Altak	24.805
Bajak	8.352
Bildumaren hazkundearen %	9,57%
Bilduma berritzearen %	6,35%
Bilduma historikoko fondoak	65.000
Mikrofilm-mikrofitxak	8.109
<b>Erabilera publikorako ordenagailuak</b>	249
Internet/cd-rom-etarako ordenagailuak	222
OPAC	27
OPAC kontsultak	476.328
WEB kontsultak	21.500
Liburutegi Zerbitzuetako <b>bazkideak</b>	77.614
2006ko bazkide berriak	6.781
Liburutegietara egindako <b>bisitaldiak</b>	946.457
Eguneko bisiten batezb.	3.155
<b>Maileguak</b>	454.411
Eguneko maileguen batezb.	1.515
<b>Internet/cd-rom/wi-fi kontsultak</b>	128.314
KZgunean	94.931
Aretoetan	27.376
e-Donostia aretoetan	6.007
<b>Jarduera kopurua</b>	688
Liburuxkak, gidak, berritasunen orriak	714

Aurten, azpimarratzekoak dira: inora bertaratu beharrik izan gabe eskaintzen diren zerbitzuak, hau da, katalogo eta WEB bidez egiten direnak. Erregistratutako erabiltzaile gisa sartzeko eta dokumentuak berritzeko aukera eskaintzeaz gainera, dokumentu horiek erreserbatu ahal izango dituzte. Erabiltzaileak desiderata edo dokumentu-eskaria egin dezake gainera, baita azkeneko berritasunak kontsultatu eta informazioa eskatu ere. 48 orduko epearen barruan erantzuten diegu zerbitzuko galderei eta informazio eskariei gune hauetan: <http://www.bibliotecaspublicas.es/donostia> eta [librivation.donostia.org/opac.html](http://www.donostia.org/opac.html)

Aurreko urtean Kultura Ministerioko WEB egoitzen sortzaileari esker gauzatutako liburutegi-zerbitzuko WEB gunea ez da nahikoa gerora begira.

Errendimenduari dagokionez, Internet oso erakargarria izan arren ez du gure liburutegietako bisitaldien kopurua murriztu. Dena den, %4ko beherapena antzeman dugu maileguetan, ikus-entzunezkoak itzultzeko epea luzatu dugulako eta nobedade gutxiago eskaintzen delako, hiru urtez segidan luzatutako aurrekontuarekin ari baikara lanean. Aurten, berritze-

maila aurreko urtekoa baino 6 puntu beherago kokatu da.

Altzako liburutegiak instalazio berriak ditu. Orain, bi oinetan ematen ditu zerbitzuak Tomasene baserrian. Goizez eta larunbatetan ordu gehiago dago zabalik orain, dokumentu gehiago eskaintzen dira eta espazioa erakargarriagoa da, eta horren eraginez bikoiztu egin da maileguen eta bisitaldien kopurua. Kristina Eneako liburutegia 2006ko uztailan zabaldu zen eta independentea da bere kudeaketa.

Gure katalogoari dagokionez, 2.880 liburuxka berri gehitu ditugu, gehienak Donostiari buruzko gaiak biltzen dituztenak.

Katalogoan egin dugun berrikuspen-lanari dagokionez, aldizkako argitalpenak eta alfabetikoki ordenatutako gaiena dira aipagarrienak. Gai horiek euskaratzen hasiak gara, Eusko Jaurlaritzaren jarraibideak betez. Lan honekin euskal hiztun diren erabiltzaileen hizkuntza-eskariari erantzutea espero dugu.

Aurten hainbat proiektu eraman ditugu aurrera:

- Madrilgo Goethe Institut erakundearekin sinatutako hitzarmena. Liburutegiak alemanezko liburuen fondoa handitu du jasotako dohaintzari esker eta, gainera, jarduerak batera antolatuko eta liburutegien artean maileguak emateko lankidetzari ekin diogu.
- Biarritzeko Mediathèque-ri euskarazko liburuak eman dizkiogu dohaintzan eta hitzarmen bat sinatzeko aukera ere aztertu dugu, Madrilgo Goethe Institut-ekin egin dugun bezala.
- Bilgunea izeneko Eusko Jaurlaritzaren katalogoan parte hartu dugu, Euskal Herriko katalogo kolektiboa izanik. Liburutegien Sarea bere datu-base osoa bidali digu: 151.082 erregistro bibliografiko MARC21 formatuan, eta ISO 2709 arauaren arabera, UTS-8 karaktereekin (8BITS UNICODE transformazio format)
- Gazteria, Hezkuntza eta Giza Eskubideen arloaren eta Haur Dokumentazio Zentroaren arteko lankidetzak hitzarmena sinatu dugu 2007ra arte, eskoletako mediatekak garatu eta hobetzeko.
- XIX. eta XX. mendeetako

Donostiako prentsa digitalizatze proiektua: Liburutegiko langileek 125.138 orri digitalizatu eta alderatu dituzte %100ean. Martxoetik aurrera Interneten kontsultatu ahal izango da.

Pio Baroja idazle donostiarra hi zeneko berrogeita hamargarren urteurrena dela eta, jarduera ugaritan parte hartu dugu Koldo Mitxelena Kulturunearekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan. "Baroja abenturazalea" jardunaldian Javier Mariásek, Ana María Moixek, Arantxa Urretabizkaiek eta beste hainbatek parte hartu dute eta oso harrera ona izan du publikoaren aldetik. Gainera, Barojaren Donostia liburu argitaratu dugu. Horiek izan dira idazleari omenaldi egiteko ekintzetako batzuk.

Gure argitalpenen bidez liburutegien eremuan ezagutzera ematea izan da gure beste erronka. Eskoletako liburutegietarako Bibliografia selektiboa, Haur eta Gazteentzako Liburu Dokumentazio Zentroak landua, "Educación y Biblioteca" aldizkariaren 2006ko martxo-apirileko 152. zenbakian aipatu dute. Haurrentzako irakurketa-gida, "Liburu harrapatzaileak", CLIJ aldizkariaren 2006ko uztaila-abuztuko zenbakian aipatu dute, eta poster itxurarekin aurkeztutako digitalizazio-lanean izan dugun esperientzia 2006ko azaroan Murtzian izandako Liburutegi Publikoen III. Kongresuko Aktetan bildu dute.

Azkenik, literatura sustatzen aritu gara DK-literatura izeneko jardueren bitartez, Gipuzkoako Editoreen Elkartearekin eta Diario Vasco egunkariarekin sinatutako hitzarmenaren bidez. Jarduera horien artean aipatzekoak dira: Donna Leon, Juan José Millás, Laura Gallego eta beste hainbat idazleren presentzia, idazleekin batera egindako literatur tertuliak, liburu aurkezpenak, Literaktum, Komiki Jardunaldiak eta Animatoon, Liburutegi Zerbitzutik Donostia Kulturak egindako literatur eskaintzak jarduerari etekin handiagoa ateratzen dionaren seinale izanik.

# Liburutegi Zerbitzua

(Udal Liburutegi Publikoen Sarea)



## Liburutegi Nagusia - Alderdi Eder

Fondo historikoak	65.000 <sup>1</sup>
Fondoak	45.403
Bazkide berriak	1.516
Bisitariak	291.232
Eguneko bisiten batezb.	986
Maileguak	107.375
Eguneko maileguen batezb.	363
Internet/cd-rom kontsultak	22.867
Fondo historikoan egindako kontsultak	1.307
Prensa historikoan egindako kontsultak	1.241
Ikus-entzunezkoetan egindako kontsultak	1.241
Jarduera-kopurua	140
Parte-hartzaileak	3.152 <sup>2</sup>
Liburuxkak, gidak	146



## Liburutegi Nagusia - Haur Sekzioa

Fondoak	25.998
Bazkide berriak	328
Bisitariak	27.812
Eguneko bisiten batezb.	94
Maileguak	24.491
Eguneko maileguen batezb.	82
Internet/cd-rom kontsultak	1.405
Jarduera-kopurua	101
Parte-hartzaileak	1.587
Liburuxkak, gidak	39



## Altza Kultur Etxeko Liburutegia (Larratxo)

Fondoak	9.894
Bazkide berriak	131
Bisitariak	16.693
Eguneko bisiten batezb.	75
Maileguak	11.664
Eguneko maileguen batezb.	53
Internet/cd-rom kontsultak	1.820
Jarduera-kopurua	24
Parte-hartzaileak	432
Liburuxkak, gidak	35



## Casares - Tomasene Kultur Etxeko Liburutegia (Altza)

Fondoak	19.281
Bazkide berriak	682
Bisitariak	49.290
Eguneko bisiten batezb.	168
Maileguak	34.648
Eguneko maileguen batezb.	118
Internet/cd-rom kontsultak	13.719
Jarduera-kopurua	36
Parte-hartzaileak	491
Liburuxkak, gidak	45



<sup>1</sup> Zifra hurbila. Katalogazio-prozesuan den fondoak:  
2006aren amaieran katalogatutako fondoak 39855  
<sup>2</sup> Partaide kopurua. Ez dira sartzen erakusketetarako bisitariak.



# Liburutegi Zerbitzua

## (Udal Liburutegi Publikoen Sarea)



### Egia Kultur Etxeko Liburutegia

Fondoak	23.526
Bazkide berriak	307
Bisitariak	45.561
Eguneko bisiten batezb.	205
Maileguak	32.197
Eguneko maileguen batezb.	145
Internet/cd-rom kontsultak	10.436
Jarduera-kopurua	64
Parte-hartzaileak	7.324
Liburuxkak, gidak	25

### Ernest Lluh Kultur Etxeko Liburutegia (Amara)

Fondoak	23.758
Bazkide berriak	1.091
Bisitariak	155.475
Eguneko bisiten batezb.	518
Maileguak	68.398
Eguneko maileguen batezb.	228
Internet/cd-rom kontsultak	26.219
Jarduera-kopurua	54
Parte-hartzaileak	1.143
Liburuxkak, gidak	98

### Intxaurren Berri Kultur Etxeko Liburutegia

Fondoak	17.915
Bazkide berriak	342
Bisitariak	56.046
Eguneko bisiten batezb.	252
Maileguak	33.518
Eguneko maileguen batezb.	151
Internet/cd-rom kontsultak	3.463
Jarduera-kopurua	24
Parte-hartzaileak	329
Liburuxkak, gidak	23

### Larrotxene Kultur Etxeko Liburutegia (Intxaurren)

Fondoak	9.669
Bazkide berriak	142
Bisitariak	13.309
Eguneko bisiten batezb.	60
Maileguak	9.340
Eguneko maileguen batezb.	42
Internet/cd-rom kontsultak	3.596
Jarduera-kopurua	29
Parte-hartzaileak	474
Liburuxkak, gidak	27

### Loiola Kultur Etxeko Liburutegia

Fondoak	19.710
Bazkide berriak	208
Bisitariak	37.432
Eguneko bisiten batezb.	169
Maileguak	15.743
Eguneko maileguen batezb.	71
Internet/cd-rom kontsultak	4.553
Jarduera-kopurua	42
Parte-hartzaileak	893
Liburuxkak, gidak	63



# Liburutegi Zerbitzua

(Udal Liburutegi Publikoen Sarea)



## Lugaritz Kultur Etxeko Liburutegia (Antiguo)

Fondoak	21.960
Bazkide berriak	530
Bisitariak	40.675
Eguneko bisiten batezb.	183
Maileguak	28.447
Eguneko maileguen batezb.	128
Internet/cd-rom kontsultak	7.952
Jarduera-kopurua	30
Parte-hartzaileak	824
Liburuxkak, gidak	156

## Okendo Kultur Etxeko Liburutegia (Gros)

Fondoak	24.252
Bazkide berriak	1.294
Bisitariak	159.233
Eguneko bisiten batezb.	531
Maileguak	77.414
Eguneko maileguen batezb.	258
Internet/cd-rom kontsultak	31.155
Jarduera-kopurua	116
Parte-hartzaileak	2.272
Liburuxkak, gidak	56

## Urgull Mendiko Udako Liburutegia

Fondoak	4.760
Bazkide berriak	22
Bisitariak	3.324
Eguneko bisiten batezb.	43
Maileguak	337
Eguneko maileguen batezb.	4
Internet/cd-rom kontsultak	511
Jarduera-kopurua	23
Parte-hartzaileak	713
Liburuxkak, gidak	1

## Udal Musika eta Dantza Eskolako Liburutegia


Fondoak	6.629
Bazkide berriak	172
Bisitariak	50.031
Eguneko bisiten batezb.	231
Maileguak	10.759
Eguneko maileguen batezb.	50
Internet/cd-rom kontsultak	506
Jarduera-kopurua	0
Parte-hartzaileak	0
Liburuxkak, gidak	0

## San Telmo Museoko Liburutegia

Fondoak	5.317
---------	-------

## Kristina Enea Liburutegia (uztailean irekia)

Fondoak	1.124
Bazkide berriak	16
Bisitariak	344
Eguneko bisiten batezb.	1,6
Maileguak	80
Eguneko maileguen batezb.	0,8
Internet/cd-rom kontsultak	112
Jarduera-kopurua	0
Parte-hartzaileak	0
Liburuxkak, gidak	0





# Kultur Ekintzako Zerbitzua

(Kultur Etxeen Sarea)



**Kultur Ekintzako Zerbitzua**ren helburu nagusia hiritar guztiei kultur zerbitzuen eta jardueren aukera zabala eskaintzea da, kultur ekipamendurako sare baten eta esku-hartzerako hainbat programaren bidez.

Bederatzi dira sarea osatzen duten kultur etxeak:

Casares-Tomasene eta Altza Kultur Etxeak (Altza)  
Okendo Kultur Etxea (Gros)  
Larrotxene eta Intxaurren Berri Kultur Etxeak (Intxaurren)  
Loiola Kultur Etxea (Loiola)  
Lugaritz Kultur Etxea (Antiguo)  
Egia Kultur Etxea (Egia)  
Ernest Lluch Kultur Etxea (Amara)

Hona hemen 2006an kultur etxe hauetan eskaini diren jardueren eta zerbitzuen eta erabiltzaileen kopuruak:

JARDUERAK	Kop.	Erabiltzaileak
Antzerkia	227	31.823
Dantza	34	10.689
Zinema	84	19.319
Bideoa	56	1.384
Musika	113	18.703
Hitzaldiak	136	6.269
Erakusketak	72	55.286
Elkarteen bilerak eta jarduerak	1.240	28.216
Aretoen alokairua	70	10.343
Liburutegiko jarduerak	421	14.228
Beste hainbat	24	1.109
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.477</b>	<b>197.369</b>

ZERBITZUAK <sup>2</sup>	Erabilerak
Liburutegiko bisitak	573.714
Ikasteko gela	7.921
E-donostia.net (Internetarako sarbidea) <sup>3</sup>	6.007
KZgunea (Internetarako sarbidea) <sup>4</sup>	72.538
<b>GUZTIRA</b>	<b>660.180</b>

PRESTAKUNTZA	Ikastaroen kop.	Erabiltzaileak
2006-2007 ikastaroak <sup>5</sup>	155	2.391
Ikastaro puntualak (2006)	27	695
Udako ikastaroak	5	84
KZgunea ikastaroak	136	1.039
E-donostia.net ikastaroak	62	533
<b>GUZTIRA</b>	<b>385</b>	<b>4.809</b>

**GUZTIRA 2006** **862.311**

- 2 Espezializazioei dagozkien zerbitzuak (irratia, bideoa...) Kultur Etxe bakoitzaren atalean aipatzen dira.
- 3 Udal Sustapen Elkartearekin lankidetzan kudeatua. Loiola eta Larrotxene Kultur Etxeetan.
- 4 Eusko Jaurritzarekin lankidetzan kudeatua. Ernest Lluch, Egia, Casares-Tomasene eta Lugaritz Kultur Etxeetan.
- 5 Astean behin saio bat urtik abendura bitartean. Ohi ez bezala, memoria honetan ez ditugu bildu prestakuntza-atalean ikastaroen eta erabiltzaileen kopuruak, 2005ean hasi eta 2006an amaitutakoan (151 ikastaro eta 2.400 erabiltzaile).



# Kultur Ekintzako Zerbitzua

(Kultur Etxeen Sarea)



Programazioari dagokionez, beraien izaera eta garrantziagatik, honako jarduerak dira aipatzekoak: Poltsikoko Antzerkiaren Jaialdia, Kaleko Zinemaren Jaialdia, Kaleko Antzerkiaren Jaialdia, antzerki-, musika- eta dantza-programazio egonkorra Egia eta Lugaritz Kultur Etxeetan (helduentzat, gazteentzat zein haurrentzat), Bideoaldia, Abesbatzen Astea, Literaktum eta abar. Hortaz, hiritarren eskaerak eta kezak betetzera bideratutako jarduera-sorta handia eskaini da.

Kultur Ekintzako Zerbitzuak, lurraldearen esparruan esku hartzeaz gain, helburutzat du populazioaren sektore ezberdinei ere arreta eskaintzea. Lanerako ildo honen bidez, populazioko sektore jakinetara bideratutako kultur zerbitzu eta jarduerak proposatzen eta eskaintzen dira. Eskaintza hori, gainera, sektore jakin horren ezaugarri eta behar berezietara egokitzen da.

Helburu honekin eta udalaren esparruko arlo jakinen lankidetzarekin, honako zerbitzuak sartu dira azken urteetan Kultur Etxeetan:



## HAURTOKO

2006an, Groseko Haurtxokoak eta Amarakoak ezarpen maila handia lortu dute auzo bakoitzean, eta hezkuntzaren ikuspegitik funtsezko erreferentzi gune bilakatu dira dagokien jarduera-eremuan. Antiguokoa

larunbatetan bakarrik dago zabalik, baina gero eta eskari handiagoa dagoela ikusita, zerbitzua zabalteko aukera aztertzen ari gara.



## GAZTELEKU

Azpimarratu beharra dago Egia, Amara eta Groseko Gaztelekuak errealitate sozial eta kultural desberdinetatik etortzeko gazteen integrazioa ahalbidetu eta bultzatzen duten gune bilakatu direla,

udal proiektu honen helburuetako bat, alegia. Antigu auzoaren kasuan, gero eta gazte gehiagok erabiltzen dute zerbitzu hau eta ordutegia zabalteko eskatu dute.

## MUSIKAGELA

Zerbitzu hau Egia Kultur Etxean ematen da eta hiriko musika-taldeei entsegu-aretoa aldi baterako uztean datza (gehienbat gazteei). Zerbitzu hau zazpi entsegu-gelak, DJentzako tailer batek eta musika-instrumentuak gordetzeko biltegi batek osatzen dute.

Aipatzekoa da 2006an sendotu egin dela zerbitzua, erabiltzen duten taldeen kopurua handiagoa izateaz gainera –helburutzat jarritako batezbesteko okupazio-maila lortu da–, “I. Musikagela Topaketa” antolatu baita bertan. Topaketa horretan gonbidatutako talde batek eta zerbitzuaren ohiko erabiltzaile diren beste zazpi taldek jendaurrean zuzenean jotzeko esperientzia bizi ahal izan zuten Gazteszenan.



## PLUS 55

55 urteik gorakoei zuzendutako aisialdirako eta astialdirako programa hau hiriko kultur etxeetan eskaintzen da, eta Gizarte Ongizatearen arloak eta Donostia Kulturak sustatzen dute. Talde

honetako boluntarioek bultzatutako eta jorratutako egitasmoei eta ekimenei sostengua ematea da zerbitzu honen helburua, baita Kultur Etxeak 55 urte baino gehiago duten pertsonentzako sozializazio-, jarduera-, eta zerbitzu-gune bilakatzea ere.

2006an, Plus 55ek arrakastaz garatu du bere lana, bai Ernest Lluch, Casares-Tomasene, Okendo eta Lugaritz Kultur Etxeetan baita Udal Musika eta Dantza Eskolan ere. Informazioaren eta hedapenaren esparruetan, berriz, areagotu egin dira kontsultak. Jardueri dagokionez, honakoak nabarmentzen dira: Larunbatak dantzan (dantzaldiak zuzeneko musikarekin), Ibilaldiak Donostian (paseoak hirian barrena helburu jakin batekin), Gimnasia Hondartzan eta Kontarte (arteari buruzko zikloak). Plus 55 delakoak kolektibo babesgabeak sartu ditu proposaturiko jarduera batzuetan, hala nola adineko pertsona itsuak eta baliabide gerontologikoen erabiltzaileak.

Bere ezarpenari esker proiektu eta ekimen ugari aurrera eramán ahal izateaz gainera, 55 urteik gorako hiriko pertsonentzako erreferente izatea lortu du.

Hona hemen zerbitzu horien onuradun izan diren erabiltzaileen kopurua:

SEKTORE ZERBITZUAK	Jarduerak	Parte-hartzaileak
Haurtxoko	258	13.299
Gazteleku	197	22.131
Plus 55	233	6.944
Musikagela	38 (taldeak)	4.489
<b>GUZTIRA</b>	<b>726</b>	<b>46.863</b>

Orain arte aipaturikoaz gain, Kultur Ekintzako Zerbitzuak, beste arlo eta erakunde batzuekin lankidetzan, populazio-sektore jakinei bideratutako jarduerak diseinatu eta prestatu ditu Kultur Etxe guztietan. Programa horietako batzuen adibide dira, esaterako: Gaztemaniak!, Donostia Mundu Artean, Gabonak Zuretzat, Irudi Biziak, Ikasgelak, Larunbatak Dantzan, Literatur Zita, Emakumearen Asteak eta abar.

Azkenik, Kultur Etxerik ez den inguruetan, lankidetzan-hitzarmenak sinatu dira bertako elkarte adierazgarriekin, kultur programak eta jarduerak garatu ahal izateko. 2006. urtean, hitzarmenak sinatu ziren ondoko erakundeekin:

- Igeldoko Herri Kontseilua (Igeldo)
- Etxadi Kultur eta Kirol Elkarte eta Lantxabe Elkarte (Aiete)
- Añorga Kultur eta Kirol Elkarte (Añorga)
- Mundo Nuevo Elkarte (Amara Zaharra)
- Zubietako Herri Batzarra (Zubietako)

# Egia Kultur Etxea



## JARDUERAK

Antzerkia	61	9.259
Dantza	26	5.402
Zinema	3	1.045
Bideoa	0	0
Musika	27	8.474
Hitzaldiak	8	276
Ikastaroak eta tailerrak	52	543
Erakusketak	14	9.567
Elkarteen bilerak eta jarduerak	67	2.238
Alokairuak	19	5.517
Liburutegiko jarduerak	64	7.324

## GUZTIRA

## Kop.Erabiltzaileak

61	9.259
26	5.402
3	1.045
0	0
27	8.474
8	276
52	543
14	9.567
67	2.238
19	5.517
64	7.324
<b>341</b>	<b>49.645</b>

## ZERBITZUAK

Liburutegiko bisitariak	45.561
Gazteleku	6.172
Ikasgela	5.658
Musikagela	talde-kop. 38
KZgunea	7.648

## GUZTIRA

## Erabiltzaileak

45.561
6.172
5.658
4.489
7.648
<b>69.528</b>

2006. urtean GAZTESZENAK programazio anitza eskaini du, musika, dantza eta antzerkiko ehunetik gora proposamen, gehienak ezohikoak eta gazteei nabarmen zuzenduak, bilduz. Programazio honek erreferentzi gune izan nahi du hiriko kultur eskaintzan eta ahalegin berezia egiten du publiko berriak erakarri nahian.

DANTZAZ, MUSIKA GELA eta AET (Arte Eszenikoen Tailerrak) zerbitzuek esaterako, egunero eskaintzen dute arte eszenikoen arloan prestatu eta sortzeko aukera.

Era berean, erakusketa-aretoan artista gazteek aurkeztutako proposamenei, aurten ESPAZIARTE gehitu zaio, artista gazteek beren sormena garatzeko murrak izanik.

Liburutegiak, Gaztelekuak, KZguneak, ikasgelak, argazkilaritza-tailerrak, Djenak eta beste hainbat jardueren programa zabalak parte-hartze handia izan dute erabiltzaileen aldetik baita oso harrera ona ere publikoaren aldetik. Kolektiboen eta elkarten parte-hartzea ere handia izan da eta, beraz, Egia Kultur Etxea topagune gisa sendotzen ari dela esan daiteke.

Aurtengoan, gainera, hainbat hobekuntza-lan burutu dira erai-kinean eta ekipamenduan bertan, premia berrietara egokitzeko eta gure zerbitzuak ahalik eta baldintza onenetan eskaintzeko.

Horrexetatik, Kultur Etxe honetan urte honetan burututako ekintza ugariak ikusita, oso positiboa izan da bertako jardunari eta dinamizari buruzko balorazioa.







## JARDUERAK

	Kop.Erabiltzaileak	
Antzerkia	14	1.240
Dantza	1	2.000
Zinema	3	600
Bideoa	5	250
Musika	16	1.320
Hitzaldiak	20	980
Ikastaroak eta tailerrak	57	689
Erakusketak	12	17.300
Elkarteen bilerak eta jarduerak	51	2.700
Aretoen alokairua	13	2.670
Liburutegiko jarduerak	42	893
<b>GUZTIRA</b>	<b>221</b>	<b>27.972</b>

## ZERBITZUAK

	Erabiltzaileak
Liburutegiko bisitariak	37.432
E-donostia.net	4.524
<b>GUZTIRA</b>	<b>44.626</b>

Liburutegiaren erabiltzaileen kopuruak nabarmen eta etengabe egin du gora. Literatur tertuliei eta bisitaldi gidatuei heldu die berriro, eta gainera haurren irakurtzeko zaletasuna pizteko programek, Ipuinaren Ordua izenekoak adibidez, izugarriko harrera ona izan dute.

Era berean, teknologia berrien sustapenari eta hedapenari dagokionez, Kultur Etxean finkatutako E-donostia.net programak goranzko eboluzioa izan du, eta bete duen bigarren urte honetan nabarmen handitu da Interneten nabigatzeko eta eremu honetan prestatzeko interesa erakutsi duten erabiltzaileen kopurua.

Nobedade gisa azpimarratzekoa da dagoen eskariari erantzunez hezkuntzari loturiko esku-hartzearen ildo berrian arreta berezia jarri dela, psikologia eta pedagogia aplikatuarekin zerikusia duten ezagutzak hedatzera emanez. Horren erakusgarri ditugu haurren beldurrei eta ipuinei loturiko programa desberdinak, nerabeekiko tratua eta gatazken konponbidea, edoskitzaroa eta haurren elikadura, erditze naturala, papiroflexia tailerrak eta abar.

Berriro ere, eta gizarteko sektore eta kultur eremu desberdinetara zuzenean hurbiltzeko asmotan, hainbat programa eta jarduera egin dira urtean zehar Kultur Etxetik kanpo. Horren adibide dira, esaterako: Benartegia, Loyolatarra, Gazteleku, Ur Kiroiak, tabernak, eliza eta abar.





## JARDUERAK

	Kop.	Erabiltzaileak
Antzerkia	10	2.330
Dantza	2	350
Zinema	4	1.112
Bideoa	0	0
Musika	6	1.350
Hitzaldiak	11	578
Ikastaroak eta tailerrak	39	380
Erakusketak	1	353
Elkarteen bilerak eta jarduerak	99	1.882
Aretoen alokairua	4	124
Liburutegiko jarduerak	36	491
<b>GUZTIRA</b>	<b>212</b>	<b>8.950</b>

## ZERBITZUAK

	Kop.	Erabiltzaileak
Liburutegiko bisitariak		49.290
Plus 55		26
KZgunea		8.597
<b>GUZTIRA</b>		<b>57.913</b>

## IRRATIA

Sortutako irratsaioak	53
Egindako elkarrizketak	342
Irrati Tailerreko erabiltzaileak	19

Otsailean gune berri bat zabaldu genuen, Tomasene, eta gertaera aipagarria izan da Casares Kultur Etxeak bere hogeigarren urteurrena ospatu duen urte honetan. Eraikin berriak Altzako aisia eta kultur zerbitzuen eskaintza osatzen du, bi liburutegi (bata helduentzat eta bestea haurrentzat) eta ekitaldi-aretoa (ehun eta berrogei pertsonarentzako lekua duena) barne hartzen baititu.

Hobezina izan da erantzuna: Liburutegiaren ordutegia zabaldu izanaren ondorioz %100ean gehitu da bazkide berrien kopurua eta egindako maileguren kopurua, 2005. urtearekin konparatuta.

Casares Kultur Etxean abian jarritako Altzako Historia Mintegiko kideek ere ospatu dute hogeigarren urteurren hau. Elkartek urte oparoa izan du, "Hautsa kenduz" argitalpenaren zortzigarren emanaldia kaleratzeaz gainera, "1887-1986 Album Altzatarra" liburuan Altzako historiaren 100 urte bildu baititu iruditan betiketuta.

Casares-Tomasene Kultur Etxea Literaktum-en azkeneko edizioaren jardunaldietako baten egoitza izan zen, eta, Casares Irratia, Literaktum-en parte hartu eta "Airearen Antzerkia" irratifikioko lehenengo lehiaketa antolatuta, genero honen sorkuntza eta hedapena bultzatu eta indartzeko.

Dena den, Tomasene abian jartzeko lanek ez dira eragozpen izan Kultur Etxean oso sustraituta dauden jarduerak garatzeko, besteak beste: Poltsikoko Antzerki Jaialdia, Abesbatzen Astea, Kaleko Zinema eta Antzerkia eta abar, baita ikastaroak eta tailerrak, eta "Aspaldian berri" auzoko argazki zaharren erakusketa.







JARDUERAK	Kop.	Erabiltzaileak
Antzerkia	12	1.276
Dantza	4	659
Zinema	0	0
Bideoa	0	0
Musika	8	1.467
Hitzaldiak	1	256
Ikastaroak eta tailerrak	8	124
Erakusketak	1	710
Elkarteen bilerak eta jarduerak	293	5.626
Aretoen alokairua	0	0
Liburutegiko jarduerak	24	432
<b>GUZTIRA</b>	<b>351</b>	<b>10.550</b>

ZERBITZUAK	Kop.	Erabiltzaileak
Liburutegiko bisitariak		16.693
Plus 55	9	1.166
<b>GUZTIRA</b>		<b>17.859</b>

Urtean zehar Altza Kultur Etxearen ekipamenduan pixkanaka gehitu izan diren hobekuntzei esker (motorizazioa, argiteria, segurtasun-sistemak eta abar) hobetu egin da arte eszenikoe-tako eta musikako ikuskizunen maila.

“Heavy Jaia” eta “Etengabeko Zarata” jaialdiak, hurrenez hurren heavy eta hard core musikei eskainitakoak, bertan ospa-tzen dira, eta aurtengoan rock & roll kontzertu ugari ere eskaini izan dira Altzan.

Haur Antzerkiak gero eta publiko leialagoa du. Aretoa goraino betetzen du hilero eta zenbaitetan txikiak baino gozamen handiagoa hartzen dute gurasoek. Bestalde, auzoko elkarte ugari-kin izaten dugun lankidetzak fruituak ematen jarraitzen du. Altza Kultur Etxea hainbat jarduera eta programa egiteko topagune izan da, besteak beste: Solidaritatearen Jaia, Emakumearen Astea, Sevillatarren Jaialdia edo urtean zehar izaten diren ikas-taroak, esaterako Aretoko Dantzak, Tai Chi edo Historia.

Azkenik, Larratzoko liburutegiak bere katalogoa zabaltzen jarraitzen du eta orain pelikulak eta musika CDak ez ezik mer-katuratu diren azkeneko nobedadeak ere kontsultatu eta maile-guz har daitezke.





# Ernest Lluch Kultur Etxea

(Amara)



JARDUERAK	Kop.	Erabiltzaileak
Antzerkia	22	2.790
Dantza	0	0
Zinema	4	1.350
Bideoa	2	45
Musika	11	1.895
Hitzaldiak	10	485
Ikastaroak eta tailerrak	60	650
Erakusketak	13	3.998
Elkarteen bilerak eta jarduerak	461	10.784
Aretoen alokairua	17	335
Liburutegiko jarduerak	56	1.189
Beste zenbait <sup>6</sup>	7	65
<b>GUZTIRA</b>	<b>663</b>	<b>23.586</b>

ZERBITZUAK	Erabiltzaileak
Liburutegiko bisitariak	155.475
Haurtxoko	5.255
Gazteleku	5.818
Plus 55	1.653
Ikasgela	2.263
KZgunea	22.953
<b>GUZTIRA</b>	<b>193.417</b>

<sup>6</sup> Kultur Etxean egin diren prentsaurrekoak eta bisitaldi gidatuak.

2006an, Ernest Lluch Kultur Etxeak bere ildo segitu du Amarako auzotarrentzako eta elkarteentzako eta Donostiako gainerako hiritarrentzako topagune izateko. Eta, izan ere, elkarre ugarik erabiltzen dituzte bertako aretoak bilerak egiteko eta jendearentzat irekiak diren jarduerak garatzeko. Atal honetan aipatzekoa da hainbat elkarte egiten duten lana, ARES elkarteak adibidez, astero bizitasun handiko bideo-foruma koordinatuz.

Programazioaren atalean, aipatzekoak dira aurtan egin diren erakusketak: "Bascos a Catalunya-Katalanak Euskal Herrian", "No eres la muñeca de nadie - Ez zara inoren panpina", "Parafernalia - Skate Kultura", "Minimo" (Elena Odriozola) eta "Euskadi Fantastikoa". Era berean, aurtan finkatu egin dira Literaktum Letren eta Lengoaien Festa (Chojin raperoaren eta Jabier Muguruza kantautorearen arteko elkarrizketa) eta Erakusleihoa (formatu txikiko ikuskizun esperimental eta diziplina anitzeko programa).

Gainera, Donostia Kulturaren beste zentro batzuekin batera, eta Liburu-saltzaileen Elkartearekin eta Aula de Cultura DVrekin lankidetzan, DK Literatura jarri dute abian goren mailako idazleak irakurleengana hurbiltzeko asmotan. Bi izan dira zitak: Harkaitz Cano eta Juan Bonilla idazleen arteko elkarraldia, Paul Austerren obrari buruz hitz egiteko, eta Juan José Millásen solasaldia.

Azkenik, Kultur Etxeak lanean dihardu zerbitzu jakin batzuk (Liburutegia, KZgunea, Haurtxoko, Gazteleku, Plus 55 eta ikasgelak) eta diziplina artistiko desberdinen inguruko ikastaroak (dantza, pintura, bertsolaritza, Alexander Teknika eta abar) hiritarrei eskaintzeko.





## JARDUERAK

	Kop.	Erabiltzaileak
Antzerkia	19	2.989
Dantza	0	0
Zinema	3	1.100
Bideoa	23	280
Musika	26	1.996
Hitzaldiak	58	2.867
Ikastaroak eta tailerrak	60	650
Erakusketak	15	18.257
Elkarleen bilerak eta jarduerak	47	1.646
Alokairuak	5	963
Liburutegiko jarduerak	116	2.272
<b>GUZTIRA</b>	<b>372</b>	<b>33.020</b>

## ZERBITZUAK

	Erabiltzaileak
Liburutegiko bisitariak	159.233
Haurtxoko	8.044
Gazteleku	10.141
Plus 55	2.218
KZgunea	26.432
<b>GUZTIRA</b>	<b>206.068</b>

Aurtengoa bizitasun handiko urtea izan da Okendo Kultur Etxearentzat. Batetik, hoguei bat erakusketa eskaini dira, kontrastea, diziplina desberdinak elkartzea eta, jakina, kalitatea lortu nahi zutenak. Gainera, erakusketen osagarri izan diren jarduera ugari Kultur Etxeko zerbitzu desberdinak inplikatu proposatu eta aurrera eramanez. Horrek guztiak erakusketak aberasteko, bizitasun handiagoa emateko eta jendearengana hurbiltzeko balio izan du.

Bestetik, zerbitzuetan ere goraldia eta bizitasun handia antzeztan da. Liburutegia etengabe bisitatu izan dute erabiltzaileek: KZguneak jende ugari erakartzen jarraitzen du, ematen dituen ikastaroetan eta Interneten nabigatzeko zerbitzuan. Haurtxokoa eta Gaztelekuak, etengabe eboluzionatzen ari diren hezkuntza-guneak izateaz gainera, gero eta gehiago parte hartzen ari dira auzoko agente desberdinekin eta, gainera, asko estimatu eta eskertzen dute haien lankidetzak. Plus 55ek ere hazten jarraitzen du, bestalde. Nabarmentzekoa da Osasun programa eta hondartzako Gimnasia, oso harrera ona izan duten jarduerak, alegia.

Gainera, azpimarratzekoa da "Mendi Zikloa" gisako programak eta iruzkindutako musika-proiektzio berriek izan duten arrakasta handia. Izan ere, izan duten harrera ona ikusita musika-gaiekin zerikusia duten ikastaroak programatzen hasi gara.

Literaturaren arloan Okendo Kultur Etxeak sustraitua duen tradizioa eboluzionatzen ari da eta emaitza onak izango dituelakoan gaude etorkizunari begira, proiektu hauen bidez: Literaktum Festa eta DK-Literatura programa, beste zentro eta zerbitzu batzuekin koordinatuta aurrera eramandakoak.

Azkenik, aipatzekoa da Katalunia plaza berriaren diseinuari buruz hiritarrak egiten ari diren kontsultak, interes handia piztu baitu Groseko auzotarren artean.







JARDUERAK	Kop.	Erabiltzaileak
Antzerkia	68	8.607
Dantza	0	0
Zinema	63	13.372
Bideoa	9	149
Musika	12	1.659
Hitzaldiak	20	418
Ikastaroak eta tailerrak	37	389
Erakusketak	9	3.800
Elkarteen bilerak eta jarduerak	178	2.591
Elkarteen bilerak eta jarduerak (Merkatu zaharrean)	1.266	31.408
Merkatu Eguna	14	7.870
Aretoen alokairua	5	634
Liburutegiko jarduerak	30	824
Beste zenbait <sup>7</sup>	4	199
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.715</b>	<b>71.320</b>

ZERBITZUAK	Erabiltzaileak
Liburutegiko bisitariak	40.675
Gazteak Dinamizatzeko Zerbitzua (Merkatu zaharrean)	3.487
Haurrak Dinamizatzeko Zerbitzua (Merkatu zaharrean)	1.743
Plus 55	1.881
KZgunea	6.908
<b>GUZTIRA</b>	<b>54.694</b>

<sup>7</sup> Gazteen aholkularitza-batzordeen bilerak eta "Donostia, Bake eta Giza Eskubideen aldeko hiria" erakusketaren sari ematea.

2006an ere, Lugaritz Kultur Etxeko "Imanol Larzabal" guneak haurrentzako antzerki eta zinema-programazio zabala eskaini du, formatu txiki eta ertaineko antzerkiarena eta euskarazko kontzertuenen. Nabarmentzekoa da, izan duen arrakasta handiagatik, "Donostia Bertsotan" jarduera, luxuzko kartela izan duena: Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio eta Unai Iturriaga.

Haurrentzako zinemak harrera ona izaten jarraitzen du. Bestalde, erakusketa originalenen artean, edo publikoaren interes handia piztu dutenen artean, hauexek izan dira aipagarrienak: "Las puñetas y el siglo XXI", Enrique Ochotorearen akuarelak eta Antiguu auzoko Istingorra elkarteen 75. urteurrena ospatzeko egin den argazki erakusketa.

Baina ez dugu ahaztu behar aurten "Merkatuaren egunaren" bigarren edizioa izan dela. Hamabost jarduera baino gehiago egin ziren eta hamar mila pertsona inguruk parte hartu zuten bertan.

Liburuaren munduarekin lotuta, kontzertu didaktiko bat eskaini da Mozart hil zeneko 250. urteurrena oroitzeko, eta oso harre-  
ra ona izan du ikasleen artean.

Bestalde, plus 55 edo Haurrak eta Gazteak Dinamizatzeko zerbitzuek auzoan oihartzun handia izan duten programak eta jarduerak garatu dituzte.







## JARDUERAK

	Kop.	Erabiltzaileak
Antzerkia	10	1.325
Dantza	0	0
Zinema	2	290
Bideoa	17	660
Musika	5	382
Hitzaldiak	7	359
Ikastaroak eta tailerrak	49	590
Erakusketak	4	881
Elkarteen bilerak eta jarduerak	42	635
Aretoen alokairua	0	0
Liburutegiko jarduerak	29	474
Beste zehbail <sup>o</sup>	13	845
<b>GUZTIRA</b>	<b>178</b>	<b>6.441</b>

## ZERBITZUAK

	Erabiltzaileak
Liburutegiko bisitariak	13.309
Edonostia.net	1.483
<b>GUZTIRA</b>	<b>14.792</b>

## BIDEO-TAILERRA

	Kop.	Erabiltzaileak
Gidoi-aholkularitza	60 gidoi	39
Ekoizpenak	32	172

8 Festatik Festara eta Gabonak Zuzetzat (tailerrak izan ezik).

Ikastaroak eta tailerrak dira Kultur Etxearen jardunaren ardatza. Ordutegiak zabaldu ditugu eta dantza-ikastaroak barne hartu ditugu, eskari handia dutelako. Animazio-tailerrak eskaini izan ditugu doan, ikus-entzunezko hizkuntza ezagutu nahi duten erabiltzaile gazteentzat. Helduentzako bideo-ikastaroak sendotu egin dira eta haur eta nerabeak ikus-entzunezkoetan prestatzeko ikastaroak, Kameraren atzetik deritzanak, Kultur Etxearen bereizgarri bihurtu dira. Izan ere, sei talde osatu dira eta hirurogei bat ikasle parte hartu dute ikasturte bakoitzeko.

E-donostia.net zerbitzuak oso eskaera handia du eta zabaldu egin du ikastaroen eskaintza. Nabarmentzekoak dira ikus-entzunezkoen edizioaren inguruan eskaintzen dituenak, Kultur Etxearen espezialitatea teknologia berrieekin elkartzeko eta hiritarrek ikus-entzunezkoen bidez espresatzeko aukera ematen duena.

Auzoko elkarteekin batera antolatutako jarduerak, esate baterako, Emakumearen Astea edo Intxaurren kantuz, auzoko elkarteekin eta agenteen parte-hartzea bultzatzeaz gainera egokitu egiten dute programazioa kolektibo desberdinen eskarietara. Era berean, programatu diren kaleko jarduerak ere oso harrera ona izan dute.

Kultur Etxearen ikus-entzunezko espezializazioak proiektio handia izan du hedabideetan ez ezik nazioko zein nazioarteko jaialdietan ere, hainbat sari lortu baita horietan. ... elkarrizketan programak, zuzendari berriez gain, zinemako diziplina desberdinetan diharduten gonbidatuak ekarri ditu, zinemaren munduan esperientzia zabala duen jendearekin ikus-entzunezkoen prestakuntza eta erakusketak elkartzeko asmoz.



# Intxaurrondo Berri Kultur Etxea



JARDUERAK	Kop.	Erabiltzaileak
Antzerkia	11	2.007
Dantza	1	60
Zinema	2	450
Bideoa	0	0
Musika	2	160
Hitzaldiak	1	50
Ikastaroak eta tailerrak	20	547
Erakusketak	3	420
Aretoen alokairua	7	100
Elkarteen bilerak eta jarduerak	2	114
Liburutegiko jarduerak	24	329
<b>GUZTIRA</b>	<b>73</b>	<b>4.237</b>

ZERBITZUAK	Erabiltzaileak
Liburutegiko bisitariak	56.046

Liburutegia da Kultur Etxearen zerbitzu nagusia eta auzoko kultur baliabide erabiliena izaten jarraitzen du. Obrak egiten hasi gara irakurtzeko gunea zabaltzeko eta fonoteka oraingo erabileretara egokitzeko.

Ikastaroen eskaintza zabala da eta gora egin du matrikulatu diren ikasleen kopuruak eta egin diren ikastaroenak. "Kremak eta ukenduak", "Haur Gitarra" eta "Bikoizketa" gehitu dizkiegu aurreko urteetan jadanik eskainitako beste diziplina batzuei.

Auzoko elkarteekin batera antolatutako jarduerak, besteak beste, Emakumearen Astea, Festatik Festara edo Bidaiariaren Astea, publiko berria erakarri dute eta Kultur Etxea auzoaren dinamikan sartzea eragin dute, jende ugari mobilizatu eta parte hartzera bultzatzeaz gain.

Bestalde, nabarmentzekoa da haurren eta gazteen mahaia. Bertan, auzoko hainbat elkarte eta agentek parte hartzen dute, eta bigarren urtez segidan eskaini izan ditugun jarduerak sendotzeaz aparte programa berriak abian jartzea du helburu, auzoko kolektibo hauentzat kultur eta aisia eskaintza eta eskaria bat ez datozen datetan.

Haurrentzako antzerki programazioak auzotar ugari erakartzen jarraitzen du eta kaleko jarduerak, baita zikloek ere, oso harre-  
ra ona izaten jarraitzen dute.





# Arte Eszenikoak eta Musika



	OBRAK	FUNTZIOAK	IKUSLEAK
<b>ANTZERKIA</b>			
Antzerki Feria	30	75	30.258
Guztira	30	75	30.258
<b>Neguko denboraldia</b>			
Antzerki Profesionala	45	80	14.330
Amateur Antzerkia	38	38	4.601
Haur Antzerkia	55	60	9.091
Kaleko Antzerkia	39	39	10.904
Beldurrezko Antzerkia Kalean	2	3	5.200
Beldurrezko Antzerkia	2	2	890
Poltsikoko Antzerkia	18	21	1.460
Eskoletako Antzerki Emanaldiak	2	2	366
Beste zenbait	16	16	964
<b>GUZTIRA</b>	<b>217</b>	<b>261</b>	<b>47.806</b>
<b>Udako denboraldia</b>			
<b>ANTZERKIA</b>	<b>11</b>	<b>89</b>	<b>26.348</b>
<b>LIRIKA</b>	<b>8</b>	<b>10</b>	<b>3.733</b>
<b>MUSIKA</b>	<b>105</b>	<b>105</b>	<b>18.881</b>
<b>DANTZA</b>	<b>35</b>	<b>38</b>	<b>9.126</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>357</b>	<b>540</b>	<b>136.152</b>

Pepe Sancho, Antonia San Juan, Karra Elejalde, Héctor Alterio, Jaime Blanch, María José Goyanes, Silvia Marsó edo José Luis Gil.

Victoria Eugenia Antzoki berria laster sartuko da hiriko kultur giroan. Badira seinale onak: ikusleen batez besteko kopuruak nabarmen hobetu dira. Antzerki Unitatearen funtsezko gakoek bere horretan edo sendotuta jarraitzen dute: Ikusleen harrerak ona izaten jarraitzen du neguko denboraldian ere, eta aurten goa, joan den urteetako udako antzerki denboraldirik onena izan da Antzoki Zaharrean. Haurrei zuzendutako lau programa-zio egonkorak ere aipatzekoak dira, hain zuzen ere, Antzoki Zaharrean, Imanol Larzabal aretoan, Gazteszenan eta Altzan eskaintzen direnak. Egia Kultur Etxeko Gazteszena aretoak datu bikainak ditu dantza garaikidearen programazioari dagokionez, ikusle-kopuruaren gorakada barne, eta gauza bera esan daiteke musikaren arloan ere. Lugaritz Kultur Etxeko Imanol Larzabal aretoak, berriz, formatu txikia eta haur-antzerkia jorratzen ditu, eta oso batezbesteko interesgarria lortu du ikusleei dagokionez bi espezialitateetan.

2006an, Arte Eszeniko eta Musika programazioak une zoragarriak eskaini dizkigu antzerkian, musikan eta dantzan. Ohiko antzerki-proposamenen eta proposamen garaikideagoen arteko oreka zail hori gaingitu eta konbinazio bikaina eskaintzea lortu dugulakoan gaude; haur, gazte zein helduentzako antzerkia; eskal antzerkiaren eta beste latituteetako antzerkiaren arteko konbinazioa. Euskara programazioan sartzea bermatu dugu, Euskararen Udal Patronatuaren lankidetzaren ordainezkinarekin, baita dantza garaikidea gure eszenatokietan agertzeaz ere. Hona hemen hitz hauek argitzeko hainbat adibide: "Hamelin!", Antzerki Sari Nazionala, "La barraca de Colón" Corsario antzerki taldearena, edo Chimeres-Pok-en "Kaukasiar klerazko borobila" antzezlarekin, antzerki garaikidearen proposamenen adibide. Arrakasta handikoak izan dira: "La curva de la Felicidad", "Ay Carmela!" Verónica Forquerekin edo "Políticamente incorrecto" Pentación antzerki taldearena, Pedro Mari Sánchezekin, beste askoren artean. Euskara hutsean eskainitako ekoizpenen artean: "Artea", Txalo Produzkoak-ena, Yasmina Rezaren obra ezagunaren eskubideak lortu dituen. Urteko eskal uztaren artean honakoak aipatuko ditugu, inor ahazteko asmorik gabe: "Erreleboa" Txalo-rena, "El tiempo herido" Traspasos-ena edo "Neska politik artasoro alaiak" Agerre antzerki taldearena. Tanitaka antzerki taldeak bere arrakasta handiko "El florido pensil" aurkeztu zuen berriro. Kolon hil zeneko 500. urteurrena ere ospatu nahi izan dugu Corsario antzerki taldearen eskutik "La barraca de Colón" eskainiz.

Hainbat autore gozatu ahal izan ditugu: Marlowe, Thomas Bernhard, José Sanchís Sinisterra, Aghata Christie, Eduardo Galán edo Yasmina Reza. Autore horien obrak, gainera, honako zuzendari garrantzitsuen eskuetan izan dira: Fernando Bernués, Xavier Alberti, Fernando Urdiales, Miguel Narros, Natalia Menéndez edo Carlos Zabala. Eta, azkenik, honakoak izan dira protagonistak: Charo López, Emilio Gutiérrez Caba,





# Antzoki Zaharra



	Obrak	Funtzioak	Ikusleak
Antzerki FERIA	5	5	1.613
<b>GUZTIRA</b>	<b>5</b>	<b>5</b>	<b>1.613</b>
<b>Neguko denboraldia:</b>			
Antzerki Profesionala	15	41	9.396
Amateur Antzerkia	8	8	1.036
Dantza	2	2	379
Haur Antzerkia	3	4	1.700
Beldurrezko Antzerkia KALEAN	2	3	5.200
Beldurrezko Antzerkia	2	2	890
Dantza Giza Eskubideen ARETOAN	1	1	336
Eskoletako Antzerki Emanaldiak	1	1	146
Lirika	2	4	1.616
Nosferatu	50	32	5.659
Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren ASTEA	49	21	10.809
Giza Eskubideen Zinemaldia	26	15	5.869
Surfilm Festibala	14	10	2.274
Animatoo	15	5	694
Ziklo eta Saio Bereziak	31	34	11.207
Musika	5	5	1.116
<b>GUZTIRA</b>	<b>226</b>	<b>188</b>	<b>58.327</b>
<b>Udako denboraldia:</b>			
Antzerkia	11	89	26.348
<b>GUZTIRA</b>	<b>11</b>	<b>89</b>	<b>26.348</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>242</b>	<b>282</b>	<b>86.288</b>
Beste zenbait	3	3	546
Alokairuak	15		
Lankidetzak	9		
Entseguak	3		
<b>EGUNAK GUZTIRA</b>	<b>27</b>		



2006. urtean ere Udako Denboraldia izan da Antzoki Zaharreko protagonista. Kopuruek ikusgarriak izaten jarraitzen dute. Donostiak antzerki gune gisa izan duen historia luzean bildutako bigarren emaitza onenak adieraziz, aurten 25.879 ikusle hurbildu baitira. Emaitza hauek oso garrantzitsuak dira, eta udako antzerki-plazarik nagusietako bat bilakatzen dute Donostia, Espainia mailan. Aipatzekoa da, halaber, Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea, beste behin ere parte-hartze handia izan baitu, 10.809 ikuslerek. Neguko denboraldiko parte-hartzea ere oso interesgarria izan da, 9.496 pertsona hurbildu baitira udazken-neguko hilabeteetan zehar. Aurreko urteetan baino funtzio gutxiago programatu dira, baina ikusleentzatez bestekoak gora egin du neguko beste denboraldi batzuekiko. Antzerkiak donostiarrengan pizten duen interesaren adierazgarri garbia da aipaturikoa.

Ikusle helduei zuzenduriko euskarazko antzezlanen programazioa finkatu egin da, baita aurreko urtean Donostiako eszenatokietan barrena ibili diren ikusle helduentzat eginiko euskarazko ikuskizunik onenaren "Donostia Saria" ere. Hau guztia, Euskararen Udal Patronatuaren eta Donostia Kulturaren arteko lankidetzaren fruitu da. Edizio honetan, T. Chimeres-Pok Produzioak taldearen Kaukasiar klerazko borobila ikuskizun garaikideak irabazi du saria.

Euskal Antzerkiaren Historiaren une gogoangarria dela esan genezake: ikuskizun bikaina, B. Brecht euskaraz gozatzeko aukera, proposamen garaikidea, hareazkoa, Iparraldeko kolektibo baten eta Hegoaldeko beste baten arteko koprodukzioaren emaitza. Horrek guztiak antzerkian izandako aparteko gertakari baten aurrean gaudela aditzera ematen digu.

Gainera, antolatu ditugun 7 kontzertuak nabarmendu nahi ditugu, 2.000 pertsona inguruk parte hartu baitute. Zinema programazioari dagokionez, azpimarratzekoa da Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren XVII. Asteak lortutako arrakasta izugarria, ikusle gehiagorekin. Bestalde, Surfilm Festibal eta Giza Eskubideen Zinemaldia sendotu egin dira, biak batuta ikusle gehiago izan baitute.

Antzoki Zaharrak urtean zehar 242 jarduera antolatu dituela kontuan hartuz, esan daiteke ekipamendu honen okupazio eta errentagarritasun maila oso onargarria dela. 282 funtzio edo ekitaldi izan dira guztira, eta 86.288 pertsona bertaratu dira. Victoria Eugenia zabaltzen denean, Antzoki Zaharra berriro lekutuko da eta osagarri bikaina izango da ania zaharrenaren antzerki programazioa aurrera eramateko. Hortaz, bere jarduna naturalagoa izatea espero dugu.

# Antzerki Feria



**Gunea Obrak Funtzioak Ikusleak**

## ARETOKO IKUSKIZUNAK

Antzoki Zaharra	5	5	1.613
Ganbera Aretoa	5	5	1.893
Kursaal Auditorioa	1	4	5.355
Gasteszena Aretoa	6	6	1.056
Imanol Larzabal Aretoa	4	6	541
<b>GUZTIRA</b>	<b>21</b>	<b>26</b>	<b>10.458</b>

## KALEKO IKUSKIZUNAK

Sagues	1	1	800
Parte Zaharra	8	48	19.000
<b>GUZTIRA</b>	<b>9</b>	<b>49</b>	<b>19.800</b>

**GUZTIRA 30 75 30.258**

## JARDUERA PARALELOAK

Aurkezpena: Mercartes			23
Aurkezpena: Orfeo			25
Bilera: Sarea			35
Bilera: Eskena			18
Bilera: Esquina Norte			6
Bilera: Ferien Koordinatzailea			4
Bilera: Sarearen Zuzendaritza			6
EHUko Udako Ikastaroa			73
Topagunea			200
<b>GUZTIRA</b>			<b>390</b>

## SEKTOREKO LAGUNTZAILEAK

Programatzaileak			77
Banatzaileak			15
Profesionalak&Ekoizleak?			25
Konpainiak			204
Kazetariak			54
<b>GUZTIRA</b>			<b>375</b>

**GUZTIRA 30 75 31.023**



# Antzerki Feria



Hamabigarren edizioaren balantze orokorra oso positiboa izan da. Donostiako Antzerki Feriak Estatuko zita garrantzitsuenetakoa izatea lortu du, eta aldi berean gero eta ospe handiagoa hartzen ari da nazioartean. Kaleko antzerkia indartzeko antolotzaileek egin duten apustuak, gainerako atalen artean lortutako oreka egokiarekin batera, edizio honetarako ezarritako helburuetako bat betetzen lagundu dute: profesionalen topagune gisa Feriak duen egitura eta ospea indartzea, eta dagokion jai izaera hori sendotzea.

Profesionalak Feriara gonbidatzeko ezarritako baldintzak aldatzeko arrisku handia zekarren berekin. Edizio honetatik aurrera profesionalak ez dira gonbidatzen haiei gastuak ordainduta; horren ordez, dituzten premiak kudeatzen laguntzen zaie, eta ikuskizunetarako sarrerak eta jarduera bakoitzari buruzko dokumentazioa ematen zaizkie. Ondorioz, profesionalen presentzia %30ean jaitsi da. Datu hori ikusita, hala ere, aldaketa egokia izan dela iruditzen zaigu. Feriak programatzeko gogoia duten programatzaileen alde egin du apustu, edizio honetan aurkeztutako ikuskizunak erosi ahal izateko aurrekontu kaudimendunarekin. Ikuskizunen formatua handitu egin da beste edizio batzuekin konparatuta. Eta formatu hori mantendu eta handitu egingo da datozen edizioetan, Victoria Eugenia Antzokia zabalitzen denean. Izan ere, formatu horrek publikoarentzako eskaintza hobea eta interesgarriagoa egitea ahalbidetzen digu eta Ferian espazio handiagoetako edo ahalbide handiagoak dituzten jaialdietako programatzaileak erakartzeko aukera ematen digu. Horixe da egin dugun apustua eta heldu diogun bidea, presentziak interesaren edota erosteko ahalmenaren arabera onbideratzea, alegia.

Kaleko antzerkiaren alde egin dugun apustua izan da nobedarkerik handiena. Hauxe lortu nahi dugu, publikoari, hiritarrei eta

hiriari begira, Feria antzerkiaren eta dantzaren arloko ekitaldi handia izatea. Hartara, antzerkiak kalean izan duen gero eta presentzia handiagoak eraginda erreakzioa berehalakoa izan dela ziurtatu ahal izan dugu. Lau egunetan zehar, arte eszenikoen jai handia izan da Donostia eta kaleko proposamenak nortasun berezia lortu dute Feriaren barruan.

Hona hemen alderdi aipagarriak:

- 30 ikuskizun programatu dira 75 funtziotan.
- Horietatik, 7 erabateko estreinaldiak izan dira, 7 Euskadiko estreinaldiak eta 4 Espainiako estreinaldiak.
- 31.023 pertsonak gozatu dituzte programatutako proposamenak. Aretoan, 10.458 ikusle zenbatu dira, kalean 19.800, eta jarduera paraleloetan 390 pertsonak parte hartu dute.
- Guztira 375 profesional etorri dira Donostiara, eta horietatik 77 programatzaileak dira.
- "Sarrerak agortuta" kartela 6 funtziotan jarri behar izan da:
- Duetto. Idoia Zabaleta Dantza Taldea
- En el jardín. Teatro Paraíso
- Bideak. Aukeran Dantza Taldea
- 5 hombres y mujeres.com. Globomedia (hiru funtzioetan)

- Kaleko ikuskizunek programazioaren %30 osatu dute, Feriaren barruan ia Jaialdi bat izanik. Dantzak programazioaren %20 hartu du eta nazioarteko ordezkariak guztizkoaren %25era iritsi da gutxi gorabehera.

Azkenik, nabarmentzekoa da orain arte jende gehien erakarri izan duen Feria izan dela aurtengoa, modu batera zein bestera 31.000 pertsonak baino gehiagok parte hartu baitute bertan.





# Zinema Argitalpenak



Aurten, Nosferatu aldizkariak hiru ale atera ditu: 51. alea, John Hustoni eskainia; 52. alea, Joaquín Jordári eskainia; eta 53. alea, "La generación de la violencia del cine norteamericano" gaia jorratu duena.

Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Asteari dagokionez, pelikulen katalogoaz gain, David Cronenbergi eskainitako liburua argitaratu dute, Quim Casasek koordinatua, baita "2000 Maníacos" eta "Flash-Back" fanzi-  
neak ere.



# Zinema eta Bideoa



## ZINEMAKO PROGRAMAZIOAREN LABURPEN OROKORRA

	Egunak	Filmak	Saioak	Ikuskizunak
Nosferatu programazioa	32	50	32	5.659
Beldurrezko Zinemaren Astea	8	74	45	15.893
Giza Eskubideen Topaketak	8	26	15	5.869
Surfilm festibala	5	15	11	2.474
Animatoon	3	15	5	694
Ziklo eta saio bereziak	169	200	199	31.460
<b>GUZTIRA</b>	<b>225</b>	<b>380</b>	<b>307</b>	<b>62.049</b>

## ZINEMARI ETA BIDEOARI LOTURIKO JARDUERAK

Beste behin ere, hainbat eta hainbat zinemagile, kritikari, historialari zinematografiko eta arte-munduko pertsonaren bisita jaso dugu. Besteren artean, honakoak dira azpimarratzekoak: Isaki Lacuesta, Ione Hernández, Joaquín Jordá, Luiso Berdejo, Borja Cobeaga, Pelin Esmer, Lizzette Argüello, Chema Rodríguez, José María Berzosa, Jan Svankmajer eta Shinya Tsukamoto.

Azken urteetan bezalaxe, azpimarratzekoa da Donostiako auzoetan kanpo-proiektzioak eskaintzen direla eta Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea gero eta arrakasta handiagoa lortzen ari dela, bai publikoari dagokionez eta bai kritikari dagokionez ere. Bestalde, Larrotxene Kultur Etxeko espezializazio bideografikorako proiektua finkatu egin da (bere tailer eta koprodukzio bideografikoekin, "Berriketan" programarekin –zinemagile gazteen eta ikusle donostiarraren arteko topaketa-, zinema dokumentalari eskainitako ikastaroekin, "Kameraren atzetik" programarekin -haur eta gazteei zuzendua- eta abar).

Beste arrakastetako bat, Gazteria, Hezkuntza, Lankidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin batera koproduzituriko Zinema eta Giza Eskubideen IV. Topaketak izan dira. Bestalde, oso emaitza onekin, Surfilm Jaialdia, bere laugarren edizioan, Antzoki Zaharrean ospatu da berriz ere.



# Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren XVII. Astea



Urriaren 28tik azaroaren 4ra Aste honen hamazazpigarren edizioa ospatu da. 72 film eman dira, eta 49.693 ikuslek gozatu ahal izan du Aste honetako jardueraren bat, dela emanaldi zinematografikoren bat, edota dela jarduera paralelaren bat (kaleko antzerkia, erakusketak, fanzineak, kontzertuak, zinema eta komiki-topaketak eta abar).

9 film luze programatu dira euskaraz (7 helduentzat eta 2 haurrentzat –azken hauek Kurasaaleko kubo handian, Kutxaren babesari esker-) eta 16 film labur. Guztira, 2.571 ikusle izan dira.

Filmen katalogoaz gain, David Cronenbergi eskainitako liburua eta "2000 Maniacos" eta "Flash-Back" fanzineak argitaratu dira.

200 gonbidatuk baino gehiagok bisitatu dute gure hiria Aste honetan zehar. Fantasiatzko eta beldurrezko zinemaren munduko argitalpenik garrantzitsuenetako batzuen ordezkariak bertaratu direla ere nabarmendu behar da. Argitalpen horiek Mad Movies (Frantzia), L'Ecran Fantastique (Frantzia), Nocturno (Italia), Dark Side (Britainia Handia), Toxic (Frantzia) edo Shocking News (Holanda) dira, besteren artean.





# Aldi Baterako Erakusketak



Artea:	San Telmo Museoa		Kultur Etxeak	
	kop.	bisit.	kop.	bisit.
Pintura			21	7.941
Artisautza			4	1.130
Marraskia			6	4.536
Argazkia			16	18.719
Tematikoak	2	17.332	20	20.180
Besteak	5	39.034	6	3.155
<b>GUZTIRA</b>	<b>7</b>	<b>56.366</b>	<b>73</b>	<b>55.661</b>

**Aldi baterako erakusketetako bisitariak guztira: 112.027**

**Jarduerak eta argitalpenak:** guztira, 241 jarduera egin dira eta 12 argitalpen atera dira aldi baterako erakusketekin lotuta.

	San Telmo Museoa	Kultur Etxeak	GUZTIRA
<b>Jarduerak:</b>	<b>169</b>	<b>72</b>	<b>241</b>
<b>Argitalpenak:</b>	<b>2</b>	<b>10</b>	<b>12</b>
<b>Bisitariak:</b>	<b>3.707</b>	<b>2.933</b>	<b>6.650</b>

Aurreko urteetan bezala, Donostia Kulturak aldi baterako erakusketa-eskaintza zabal mantendu du. Erakusketa horiek San Telmo Museoko erakusketa-aretoetan eta kultur etxeetan jarri dira ikusgai, batez ere, Okendo Kultur Etxean, gai honetan espezializatuturikoa baita.





# San Telmo Museoa



## • BILDUMAK:

Museoaren inbentarioa:

	<b>objektuak</b>
Arkeologia	622
Arte Ederrak	6.113
Etnografia	4.583
Argazkilaritza	8.465
Historia	1.732
<b>GUZTIRA</b>	<b>21.515</b>

Bildumari etnografiako pieza berriak gehitu zaizkio eskuraketen eta dohaintzen bitartez, horien artean: Uharteko (Nafarroa) Olloki jauretxekoak edo Lazkaoko (Gipuzkoa) Etxe-Haundi baserrikoak.

San Telmo Museoaren bildumetako 43 pieza zaharberritu dituzte, eta museotik kanpo udal ondarean ere aritu dira lanean, batik bat Aieteko Jauregikoan eta Victoria Eugenia Antzokikoan.

Urtean zehar 120tik gora kontsulta eta eskariri erantzun zaie, gehienak museoko bildumei edo piezei buruzkoak eta argitalpen batzuk irudiz hornitzeko egin izan direnak.

## • BISITARIAK:

Jardueretako partaideak	3.663
Banakoak	34.925
Taldeak	5.845
Ikasleak	2.916
Familiak	1.821
<b>GUZTIRA</b>	<b>49.170</b>

## • JARDUERAK:

- \_ Aldi baterako erakusketak:
  - "Adierazpen eta sentimena": urtarrilaren 29ra arte.
  - "San Telmorekin elkarrizketan": maiatzaren 31ra arte.
  - "Denboraren taupadak": otsailaren 17tik martxoaren 26.
  - "Paisaien fabrika": apirilaren 7tik maiatzaren 28ra.
  - "Artifizioaren kiribila": ekainaren 28tik irailaren 3ra.
  - Toni Galindo. "Zure begientzat bakarrik": irailaren 19tik 30era eta urriaren 28tik azaroaren 4ra.
  - "Eta inkak iritsi ziren": urriaren 6tik 2007ko urtarrilaren 7ra.

\_ 23 hitzaldi eta mahai-inguru, gehienbat San Telmo Museoaren Lagunen Elkartearekin edo Fundación Ordóñez-Falcón de Fotografía-rekin lankidetzan.

\_ 19 jarduera, horien artean kontzertuak, proiektzioak, Peruko janariak dastatzea, liburuen aurkezpenak edo irakurketa dramatizatuak. Horien artean nabarmentzekoak dira, maiatzaren 11n eta 12an izandako "Donostia eta bertako kultur proiektuak" topaketak, Plan Estrategikoak antolatutakoak.

\_ 174 bisitaldi gidatu

\_ 103 tailer

Lankidetzak hainbat erakunderekin: Eusko Ikaskuntza, Fundación Centro Ordóñez-Falcón de Fotografía, Nazioarteko Amnistia, Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astea, Musika

Hamabostaldia, Udal Musika eta Dantza Eskola, Koma ZK, Bordeleko Nazioarteko Azoka, Sotheby's.

Daturik aipagarriena hauxe da, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako lankidetzaz-hitzarmena, San Telmo eta Santa Teresa batera garatzeko.

2006an, museoan garatu izan den lan gehiena proiektu berria aurrera eramateko izan da. Proiektu arkitektonikoa amaituta dago eta lehiaketa martxan dago; ahalegin handiak egin dira piezen inbentarioa egiten, oinarri bat finkatu eta lekualdaketa berme guztiekin egin ahal izateko, baita ondoren dokumentazioa zabalteko oinarri izateko ere; hartara, urtearen hasieratik murriztu behar izan da piezen mailegua.

Bestalde, museoaren webgune berria lantzen hasiak gara, [www.santelmomuseoa.com](http://www.santelmomuseoa.com), garatzen joango garena, eta proiektuari, bildumei eta jarduerari buruz informatzeko tresna gisa balio duena.

2006an hedapena azpimarratu nahi izan dugu, jarduera anitzak eta ugariak programatuz, batik bat aldi baterako erakusketen inguruan.





# hemen gaude estamos aquí

## A. Casares - Tomasene

Darieta bidea, 1 (Altza)  
Tel.: 943 351149 • casares@donostia.org

## B. Altza

Larratxo pasealekua, 55  
Tel.: 943 396494 • casares@donostia.org

## C. Ernest Lluch

Anoeta pasealekua, 7 (Amara)  
Tel.: 943481919 • amara@donostia.org

## D. Larrotxene

Intxaurrenondoa kalea, 57 (Intxaurrenondoa)  
Tel.: 943 291954 • larrotxene@donostia.org

## E. Intxaurrenondoa Berri

Gaztela kalea, 2  
Tel.: 943 279343 • larrotxene@donostia.org

## F. Loiola

Aralar kalea, 17  
Tel.: 943 454605 • loiola@donostia.org

## G. Lugaritz

Heriz pasealekua, 20 (Antiguo)  
Tel.: 943 310780 • lugaritz@donostia.org

## H. Okendo

Nafarroa hiribidea, 7 (Gros)  
Tel.: 943 290672 • okendo@donostia.org

## I. Egia

Baztan, 21  
Tel.: 943 291514 • egia@donostia.org

## J. Liburutegi Nagusia Biblioteca Central

Alderdi Eder, z/g • Tel.: 943 481488  
liburutegia\_alderdieder@donostia.org

## K. DONOSTIA KULTURA

Konstituzio plaza, 1 • Tel.: 943 481150  
donostiakultura@donostia.org

## L. Antzoki Zaharra Teatro Principal

Kale Nagusia, 1  
Tel.: 943 481970 • taquilla@donostia.org

## M. Victoria Eugenia Antzokia

Argentinako Errepublikaren paseabidea, 1  
Tel.: 943 481160 • victoria\_eugenia@donostia.org

## N. San Telmo Museoa

Zuloaga plaza, 1  
Tel.: 943 481580 • santelmo@donostia.org

